

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko urtarrilak 30. III. urtea

6. urbil, 34. Zenbakia



**Usurbil
kontrolpean**

Txerrimunik ordainetan



Zorionak printxera. Non utzi dun hire xapo berdea? Zenbat ditun 20, 21, 22... A ez, 19 ditun. Ondo kontserbatzen haiz, argazkian gazteagoa ematen dun. Hire lagunen partez zorionak **Amagoia Mujika**.




Otsailaren 3an ospatuko duzun zure 4. urtebetetzean Zorionak **Julen Berradre** eta muxu haundi bat.

Txelo eta Kerman



Ilobak (**Aitzol Torregaray**), 7 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Eta osabak, berriz, (**Iñaki Torregaray**) 28 urte otsailaren 7an. 35 urte bien artean. Ez al da gehitxo?

Zorionak bioi eta egun on bana pasa deza-zuela! Zuen familia kuttuna.



Zorionak Ainara Uribe!

Eider, Usoa, Nerea eta Izaskunen partetik muxu haundi bat neska atseginenari. Agur eta beste bat arte.



Zorionak aitona!

Otsailaren 7an 55 aldiz belarritik tira eta gorri-gorri utziko dizkizut.

Oihan.

Garazi Lizaso Manterola, otsailaren 5ean sei urte beteko dituen traperara horri zorionak! familikoen partez.



Garbiñe Salsamendi Amonarriz zoriondu nahi genuke. Urtarrilaren 28an bete zituen 64 urte. Zorionak! eta mantendu horrela. Etxekoak.



Zorionak! Eneritz Agirre Urdangarin etxeko txikiari, otsailaren 7an sei urte beteko baititu. Familia eta etxekoen partetik.



Zorionak zuri, zorionak beti, Zorionak Larraitz Agirre, zorionak beti. Urte askotarako. Ondo ospatu 13 urte horiek urtarrilaren 31ean. Entrenatzaileak.

Jaiotzak

Ianire Furundarena
Olasagasti
(1998-01-16)
Kalezar

Norbait zoriondu nahi baduzu hemen duzu aukera. Zure lagunak, gurasoak, seme-alabak, ezkonberriak, lizentziatuak... zoriondu ditzakezu eta xentimorik ordaindu gabe gainera! Argazkia, eta jarri nahi duzun testua, Noaua! Kultur Elkartera eraman edo bertako buzoian utz ditzakezu.

Datorren alean zoriondu nahi duzun horren argazkia, testua eta urtebetetze eguna jakinarazteko epea: Otsailak 6

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkartea. Kale Nagusia, 37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943) 36 03 21. e-mail: mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Nieves Aranburu, Luis Aranalde, Zalao Arnaiz, Maribi Árospide, Agurtzane Solabarrieta, Joseba Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz eta Begoña Arriaga.

Administrazioa: Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Eredakzio Kontseilua: Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez. **Dokumentazioa:** Idoia Agirre. **Informatika:** Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola.

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Industrialdea 1 - 2, 20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Zu ere euskaldundu zaitezke

Pili Torres

Pedagogian lizentziatua

Ni euskera ikasten, UBIn nengoela hasi nintzen, orain dela 7 urte. Nire lagun batek euskaltegian egiten zituztenak kontatzen zikidan; harexek harra piztu eta sartu nintzen "Etumeta"n. Dena den, arrazoi indartsuenetakoa, Usurbilen integratzeko modu eraginkorra zela da.

Hasieran, institutuan hartutako oinarri gramatikala neukan, baina ez nekien euskaraz hitz egiten. Euskaltegian hasi eta lehenengo bi urtetan euskaltegian soilik hitz egiten genuen. Lehenengo aldiz Lizartzako barnetegira joan eta bi aste bertan pasa ondoren, kalean hitz egiteko oinarri on batekin ikusten nuen nire burua.

Ondoren Euskaltegian maila altuagoetan sartzten hasi nintzen, bertan kuadrila berri bat ere osatu nuen.

Nire kuadrilako gehienak euskaltegitik pasatakoak eta batzuk euskaldundutakoak dira.

Urte hori pasa ondoren, Ondarrun beste barnetegi batean egon nintzen, eta geroztik unibertsitatean pedagogi ikasketetan gelditzen zitzaizkidan lau urteak euskaraz egin nituen.


Orain euskaldundu naizen honetan, EGA atera nahi nuke. EGAK ate berriak irekitzeko itxaropena daukat. Bestetik, Euskal Herrian hezkuntzan lana egin nahi baduzu beharrezkoa da EGAKo titulua edukitzea.

EGAKo azterketa atariko froga (100 galdera), idazlana eta ahozko froga batean datza. Iaz, atariko froga ez nuen gaintu. Aurten, euskaltegian izena ematea pentsatu dut, honela EGA atera eta aukera berriak izateko itxaropenarekin.

Azala: guardia zibilen kontrola



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

376
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitez
bazkide

Guri euskara hutsez egin zigun pediatriak

A benduaren 24an gertatu zen, gabon egunean. Malen Iturain Garcia eta gu, bere gurasoak, Usurbilgo anbulategira joan ginen. Hirurak nahikoa pattal. Bi medikurekin izan ginen. Aita-amak batekin eta Malentxo beste batekin, pediatriarekin. Bigarren honekin, bestearekin ez bezala, euskara hutsez hitz egin genuen kontsultan sartu ginenetik bertatik atera ginen arte, euskara hutsean, eta guretzat hizkuntza ez zen inolako traba izan komunikaziorako.

Noaual!ren 34. zenbakian irakurri dugu hainbat jende (tarte-an udala) ahalegin haundiak egin ondoren, azkenean, lortu dela zegoen pediatriaren ordezkari beste bat ekartzea, hau euskaldun zaharra, aurrekoak ez zuelako euskaraz ondo egiten. Eta guri sekulako harridura sortarazi digu albisteak, ikaragarria, amorrarioa ere bai. Hori ez da giza legea. Gurekin izan zen neska pediatria hura eta joanarazi dutena pertsona bera baldin

bada, behintzat, ezin dugu uler-zer gertatu ote den.

Arrazoi osoa dute herritarren hizkuntz-eskubideak aldarrikatzen dituztenek, eta guk horien artean kokatzen dugu gure burua. Usurbilen ezezik Euskal Herri osoan ere eskubide osoa dugu, edo behar genuke behintzat, edozein administratibotako edozein ordezkariarekin euskaraz jarduteko eta erantzuna euskaraz jasotzeko. Pediatra horrekin gure eskubide hori gauzatu egin zen abenduaren 24ko harreman hartan. Ezin dugu beste horrenbeste esan, ambulategi horretan beste medikuarekin edo udal-tertxera haurra erroldatzera joan ginenean atenditu gintuen funtzionarioarekin izandako harremanari buruz; ez horixe! Haiek erderara behartu gintuzten. Beraz bada nondik hasi.

Pediatra hori euskaldun berria bada, ez badu oso ondo egiten, ez dakit nik zeri begiratu behar ote diogun, dakienari edo falta zaionari? Zer egin behar dugu? Falta zaionagatik


zapuztu ala ikasi duenagatik poztu eta ikasten segitu dezan bultzatu eta lagundu?

Aspaldi honetan maiz gertatzen ari da indarrak norabide desegokian, okerrean, xahutzeta. Nahiz eta egoeraren eza-gutza mugatua dugun oso, pertsona horrekin Eva bitan eta Iñaki behin bakarrik izan garela; oraingo honetan ere horrela gertatu delakoan gaude. Indar horiek, gainera, alferrik galdu ezezik gure kontra bihurtu daitezke. Zer gogo gelditu ote zaio euskera ikasten segitzeko, zer irabazi ote dugu, aldeko bat edo kontrako bat agian?

Eta alde zurretik esango diogu gurean zerbait arraroa ikusi nahiko lukeenari: gu euskaraz bizi gara.

Gutunak justizia egiteko balio ez bada, eta hori nahi genuke, gutxienez balio dezala neska horri gure elkertasuna adierazteko.

Eva Garcia
Iñaki Iturain



A ze koadrila! Auzoetako korresponsal-ak handik eta hemendik. Kalejiran saila zabaltearekin batera korresponsal sarea zabaldu dugu, eta sare horretan itsatsita gelditu zirenetako batzuk dituzue argazkian. Hala ere, ez daude denak, beste-la...

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia, 6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

XABIER EDARITEGIA

• Pintxo aukera bikaina
• Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

Berriketan



LEIRE OSES ASTIAZARAN

12 urte ditu Zubietako Irigoien baserriko gazte honek. Donostian ikasten ari da eta bere ingurukoek esaten dutenez, ezin omen du une batez ere geldirik egon.



Non ari zara ikasten?

Donostiako San Patricio eskola ingelesean ari naiz DBHko lehenengo maila egiten.

Orduan, ingelesez ere ederki hitz egingo duzu, ezta?

Beno, hori esan liteke, lau bat urte nituenean hasi nintzen ikasten eta orain ederki moldatzen naiz. Gogoratzen naiz gurasoekin Parisera joan ginenean nik egin nituela itzultzaile lanak!

Norbaitek esan dit elizako organoa jotzen duzula.

Gogoratzen naiz zortzi bat urte nituenean organoa jo nahi nuela esan niola amari. Eta gauza bera esanez aritu nintzen 11 urte bete arte. Azkenean amak Izaskun Zubiriarekin hitz egin zuen eta horrela jo nuen lehendabiziko aldiz Zubietako organoa. Orain igandero jotzen dut mezatan, elizkizun bakoitzean sei bat kanta. Hasieran jendea harrituta geratu zen, organo hori ez baitzen jotzen duela 25 urtetik.

Baina nola ikasi zenuen organoa jotzen?

Etxean, txikitan, organo elektriko bat oparitu zidaten eta nere kabuz hasi nintzen abestiak egiten. Eta orain solfeo eta pianoa ikasten nabil. Betidanik gustatu izan zait musika, abestea, konposatzea eta dantzatzea ere bai. Nire nahia izango litzateke talde bat osatzea.

Taldea ez dakit, baina korua behintzat osatu duzu.

Bai, organoaren istorio guztiarekin sortu zen "Kimu Berriak" ere. Orain, 10 gazte biltzen gara bertan. Hala ere, gu saiatu gara jende helduagoa ere erakartzen, baina ez dute nahi; aitzakia piloa jartzen dizkigute, gainera.

Eta musikaz gain, beste denborapasa kuttunik ba al daukazu?

Bai, zortzi urte nituela telebistan gimnasia erritmi-koa ikusi, eta amari esan nion talde olinpikoan egon nahi nuela eta gimnasia egiten hasi nintzen. Baina amets hori ez da beteko, orain gauza gehiago ditut egiteko eta ez daukat denbora gehiegi. Baina gimnasiaz gain, saskibaloian eta futbolekin ere aritzen naiz eskolan.

Hainbeste gauza eginda, geratzen al zaizu etxean lasai egoteko betarik?

Astean zehar oso denbora gutxi ematen dut etxean. Baina asteburua iristean ederki pasatzen dut Zubietan. Donostiarekin konparatuz gero, hemen bizitzea izugarritzko aldea da, lasaiagoa da eta konfidantza gehiago dago.

Baina duela bi urte etorri zinen bizitzera honera.

Bai, ordu arte Lasarten bizitakoa naiz. Baina azkenean, amaren baserrira bueltatu gara. Hala ere, nahiz eta tokiz aldatu, lagun eta koadrila asko ditut. Eskolan, Zubietan, Lasarten...

Telebista ikusteko denborarik ere ez al daukazu?

Ez dut gehiegi ikusten, ez baitzait asko gustatzen. Hori bai, beti aurkitzen dut Euskaraokea ikusteko tartetxo bat.

Eta Usurbila ez al zara etortzen?

Ez gehiegi. Kontzertuak daudenean besterik ez.

Eta zer moduz moldatzen zarete etxean?

Orain amonarekin bizi naiz eta nabarmentzen da beste garai batekoa dela, eta ama ere bai batzuetan. Baina bestela ederki konpontzen gara.

Haur jantziak



Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



ORKOI

GANETAKO
DENDA

Aritzeta 2 - 2 Usurbil **Merkealdiak**

ANDONI

PINTURAK

Barnelanetan
espezializatua

Itxasku-berri baserria
Usurbil

36 13 18

TXOKOALDE

Angula gutxi eta jendea erruz

Iñaki Labaka



Aurten, urtero bezala, batez ere gabonetan, anguleroak hor ibili dira jo eta ke angula harrapatu nahian. Baina azkeneko urteetan bezala angula oso gutxi atera da ibaian. Gure auzoan, zubi ondoan, jende askok aukeratu du toki aproposena lehorretik aritzeko. Auzokoez gain Aginagatik, Usurbildik eta kanpotik ere zenbait pertsona gerturatu da.

Istiluak izan direla ere entzun dugu. Aldez aurretik tokia berea zutela pentsatu eta leku hori beste batek bereganatzean sortzen dira horrelako istiluak. Horregatik, bada pos

tua aukeratu eta jabetzera marea heldu baino bost edo sei ordu lehenago etorritako jendea. Benetan, hotza eta euriarekin gogoia behar du! Eta gehienetan ale batzuk ateratzeko. Zenbaitek etxean jateko ateratzen badute ere



beste asko angula etxeei saltzeko ahaleginetan aritzen dira angula harrapatzen.

Aurten hogeita mila pezeta inguru ordaindu dizkiete angula bizi kilo bakoitzeko. Hurrengo meraan ere ziur gure txokoa anguleroz beteko dela, horiek ez baitute etsitzen. Ea ba zorte pixka bat duten eta angula barra-barra sartzen den.

Azkenik, joan den urtarrilaren 25ean Erroizpe Elkarteko batzar orokorra egin zen. Zuzendari batzordeak deituta, bazkideek elkarteko estatutuak onartu zituzten, legediak agintzen duen moduan.

KALEBERRI

Afaria logotipo baten truke

Paulino Ibarguren



Badakit ondorengo notizia kaleberrira ez dela mugatzen baina tarte hau ematen didatenez lehiaketa baten berri eman nahi nuke. Jakingo duzuen bezala Usurbilgo Tabernarien Elkarteak sortu zen orain dela gutxi. Josurekin hitz egin eta artikulu itxurosoa azaldu zen Noaua!n. Urdaiazpikoen zozketa izan zen lehen ekintza, eta primeran irten zen guztia. Gustatu zitzaizuea zozketatzeko sistema? Banekien bai nik!

Hala ere hori pasa zen eta beste kontu batekin gabiltza orain. Elkartearentzat logotipo bat nahi dugu, gero erabiltzeko aukera emango digun

logotipo baten atzetik gabiltza. Horretarako lehiaketa bat egitea okurritu zaigu. Logotipo polit-polit baten truke Usurbilgo 15 tabernetako batean afari bat eman nahi



dugu. Hobeto esplikatuko dut. Edozeinek logotipo bat egin dezake, hori bai, polita eh!. Usurbilgo edozein tabernatan utzi eta gu geu, tabernariak izango gara epaimahai kide. Logotipo onena aukeratu eta honen egileari oraindik zehaztu gabe dagoen tabernan afari bat emango diogu.

Logotipoarekin "mobida" polit bat egiteko asmoarekin gabiltza gainera. Metxero batzuk ateratzeko asmoa dugu, bertan logotipoa dagoela etab.

Anima zaitzte logotipoa egitera, Usurbilgo tabernarien elkartean behar-beharrezkoa dugu eta!

ATXEGALDE

Arrobitxuloko buzoiekin jolasean

Gure bizitzan posta zerbitzuak garrantzi handia duela ezingo dugu ukatu. Portalera sartzean ohitura bihurtu da buzoian zerba it badagoen begiratzea. Eguerdian postaria etortzean gustora joaten gara buzoira guretzat zer iritsi den ikustera. Aspaldi ikusi gabeko norba iten eskutitza bada, a ze ilusioa! Banketxeek bidaltzen dituzten ordain agiriak badira desilusia eta Telefonica edo Iberdrolaren fakturak badira zer esanik ez.

Nolanahi ere, Atxegalden gure buzoiak ondo babestuta ditugun arren, zerba it goraxe

ago, Arrobitxuloko errotondan goiko baserri eta etxebizitzetako buzoiak jarri zituzten orain dela urtebete inguru. Agerre, Agerre-azpi, Enbilleneakoek etxe itxurako buzo it handi horretan dituzte beren buzo it



partikularrak. Postariak, baserri edo etxe bakoitzera joan eta eskutitzak beraie it eman beharrean beheko buzo it honetan uzten du posta.

Batzuei, ordea, hau gustatzen ez. Arrobitxuloko buzo it horretako zenba it ate puskatuta daude, Ez dira berak besterik gabe puskatu, norba itek hartu du buzoietako zenba it ate puskatzeko lana. Dirudienez, umeak ibiltzen dira hor inguruan, buzoien atekin jolastu edo puskatu nahian. Nork konpondu behar dituzte orain buzoietako ate hauek? Agian haizeak eramango dituzte eskutitzak dagokien etxera.

Olatz Leoz



KALEZAR

Eskailerak konpondu? Bai, eskerrik asko!

Kalezarko eskailerak konpontzeko lanak hasi dira, berri bikaina benetan. Hainbeste urtetan Kalezarko jendeak itxaron duen notizia egi bihurtu da. Eskailera


hauen egoera penagarriaren kontua ez da oraingoa, behin eta berriz kexatu baita hemen jendea. Euria egiten zuenean oso arriskutsua zen hortik jeistea, eta ipurdikoren bat edo beste hartutakoak ere badira.

Orain lanak bukatu arte itxaron beharko da hortik jeisteko. Momentu honetan goian ari dira lanean eta goitik behera konpontzeko asmoa dufela dirudi. Pixkanaka-pixka-

naka eskailerak konpontzen joango dira, mailaz-maila. Gero izango dira komeriak, behean lanean hasten direnean! Tartean dauden etxetara ezingo da behetik igo. Goian behintzat, urbanizazio berria egitean jarri ziren bide berrietatik joan daiteke eskaileren erdiko zatira.

Futbol zelaian ere galipota bota dute aldagelen aurrean eta aldamenetan. Areto futboleko bi zelai egitekoak zirela ere aspaldi esan zuten. Zelaia estutu ere, estutu zuten, eta orain galipota bota dute. Laister batean futboleko jokatzeke prest egongo omen dira areto futboleko bi zelaiak.

Ainara Uribe



SANTUENEA

Pako Agudo



Ibai Ondo elkartearen lokal gastronomikoa

Ibai Ondo elkarte lokal gastronomiko izango da hemendik aurrera. Eskaera aspaldikoa da baina udala, Osakidetzaren txostenaren zain zegoen eskaera honi baietza emateko. Azkenean Osakidetzak baietza eman du eta udalak sozietate gastronomiko, arrantza, tiroa eta sozietate gastronomiko moduan legeztatzea erabaki du.

Hala ere zenbait diskusio izan dira lokal honi buruz. Ganeko bizilagunak behin eta berriz kexatu dira lokal honek baldinta minimoak ez zituela betetzen esanaz. Gasen irteerarako tximinirik ez duela,

gauean ordutegia ez dutela errespetatzen, elkarte honek bere nahiak bizilagunen gainetik jartzen dituztela... hika-mika ugari egon dira bizilagunen eta elkarteko artean.

Azkenean, ordea, udalak Ibai Ondo elkartearen lokal gastronomikoa legalizatzeko baimena eman du.

Atalluko lanak ere amaitu dituzte, bidea egin dute eta



orain jardineria lanak eta farolak jartzea besterik ez da falta. Gainera, urbanizazio lanak amaitu eta gero, Ingemarrek bere pabeloi berriak egiten hasteko ahalmena du orain.

URDAIAGA

Eider Jauregi



Andatzan gora eta behera

Negua iritsi da azkenean! Urtarrila epela zihoan baina negu beltzaren hatzarrak Urdaiaga nahiz inguruetara iritsi dira. Elurak ere bere agerpena egin zuen urtarrilaren 25ean, igandean, baina ez zen Andatza edo

Urdaiaga zuritzeko gai izan. Gure guraso eta aiton-amonak kontatzen dituzten negu kontuak, hura bai negua.

Eguraldi kontuak alde batera utzi eta Andatzako bideen berri eman behar dut oraingon.

Izan ere, goikalde horretan ez da giro. Ekainaren 1ean izan ziren uholdeen ondorioz, pisten egoera ez da batere ona. Oinez joaten direnentzat, hor nonbait, baina bizikletaz behetik gora

pasatzen diren hoiak bidean dauden zuloak sahiesten nahikoa lan izango dute. Puelatik gora doan bidea zuloz beterik dago, uraren igadurak jan du bide guztia.

Honek alde ona ere badu: kotxe gutxiago joango da gorantz. Pista ona egon ezkerre, edozein kotxe iritsiko litzateke Andatzara. Orain, ordea, horretarako prestatuta dauden ibilgailuek bakarrik igo ahal izango dute gora.

Ah bai, ia ahaztu zitzaizkidan. Andatzako txabolana egoten direnek ez omen dute garbi uzten berau. Dirudienek botela hutsak noiznahi aurkitu daitezke bertan



AGINAGA

Aginagarrak errepetidorearen zain

Hotzak, etxean denbora gehiago egotera bultzatzen gaitu eta horrek irakurri edo telebista ikustera bultzatzen gaitu. Ondorioz, aspaldidanik auzotarren ahotan dabilen errepetidorearen gaia zertan ote dabilen galdezka gabilta.

Alkatearekin elkarrizketa bat izan ondoren jakin genuen udala Retevisiónekin seinalea hartzeko leku estratejiko baten bila ibilia dela. Batean eta bestean Aranburu lorategiko inguru horretan harrapatzen dela. Guztiaren kostua Retevisión eta udalaren artean banatuko litzateke.

Momentu honetan, hala ere, Telefonikak eskaera egina du telefono mobilentzat antena bat jartzeko Usurbil mailan. Hau aprobeztatuz, udalak antena beste zerbaitetarako



Iratxe Begiristain



(kasu honetan telebista seinalea harrapatzeko) erabiltzeko baldintza ezarri dio. Hala eta guztiz ere, oraindik Telefonikak ez du baldintza hau onartu.

Ea ba, orain arteko presioa burutuz jarraitzen duen udalak, laister batean gure etxetan seinalea jasotzeko.

Bestalde eskola txikien auzia ere hor dago. Eskola txikietako gurasoek behar duten azpiegituararen berri eman dio udalari. Orain parroikiko taldearekin negoziaketetan hasi beharko du. Izan ere, datorren ikasturtea egoitza berrian has-teko asmoa da alde guztien asmoa.

ZUBIETA

Jende ugari bildu zen igandean Zubietako hipodromoan. Urteroko zita baillitzan, urtarrileko azken igandean Donostiako nazioarteko krosa jokatu zen Zubietan. Nazioarteko korrikalari onenak ikusi nahian 9000 ikusle inguru hurbildu omen ziren hipodromoan, ba zen jendea bai Zubietan aldean. Kotxe iladak topatu zitezkeen nonnahi.

Gehienetan Keniar edo Etiopiarrek irabazten badute ere, aurten europearrak izan dira nagusi Zubietako hipodromoan. Emakumezkoetan Anita Weyermann nagusitu zen eta gizonezkoetan, berriz, Paulo Gerra portugaldarra

sartu zen lehenengo postuan.

Eguraldi hotzak ez zuen jendea etxean utzi. Elurra nahiz izugarrizko hotza egin arren, korrikalariak ikustera ume, gazte eta heldu ugari joan zen.

Animo gehien Martin Fizek jaso zituen, dudarik gabe, laugarren postua eskuratu arren txalo ugari entzun zituen Zubietako hipodromoan. Laisterketa amaitu ondoren, bere firma lortu nahian



jendea bere atzetik joaten zen korrika. Igandekoa ikusita, dudarik gabe, arrakasta handia du gasteiztarrak inguru hauetan.

Alaitz Artola



H erorrek esan



Ramona Rodriguez

Eguzkitza

Egia esan ez dakit.

Badakit makilekin ateratzen direla baina nik ez dut ezagutu tradizio hau. Burgosen ez da ospatzen santa hau.



Joxeba Zuloaga

Santuenea

Ezta ideiarik ere. Nik behintzat ez nuen

eske hau ezagutu herrira bertara jeitsi nintzen arte, 26 urterekin. Guk gehiago gabon eskea ezagutu dugu.



Katalina Larrañaga

Bizkarra

Santa Ageda nor izan zen ez dakit. Nik

behintzat ez dut uste ezagutu dudarik nire garaietan, Usurbilen ez du izan tradizio haundiegirik. Orain gehiago dago.



Inaxio Zabala

Santuenea

Ez dakit ezer berari buruz, eta ez naiz inoiz

atera Santa Ageda bezperan ere. Beti kanpoan nengoen eta ez neukan aukerarik. Ikusi eta ezagutu egin dut, baina parte hartu ez.



Fernando Loiti

Eguzkitza

Santa Agedaren

historia osoa ez dakit, baina zertxobait bai. Hala ere, zaila da orain bat-batean azaltzeko. Ni behintzat gaztetan ateratzen nintzen Antzuolan. Han tradizio haundiagoa dauka.



Axun Olasagasti

Kaleberri

Egia esan, ez dut inoiz entzun zein

izan zen Santa Ageda. Baina beti ezagutu izan dut eskea hemen. Hala ere, ez naiz inoiz bertan atera. Gainera, nahikoa urte daromatza ohitura honek hemen, gure gurasoek esaten dutenaren arabera behintzat bai.



Anparo Martikorena

Kaleberri

Ez daukat ideiarik ere. Txikitan,

ordea, ezagutu izan dugu eske hau Igeldon. Makil haundia hartu eta eskean joaten ginen. Hori bai, gero dirua apai-zak hartzen zuen eta ez dakigu nori ematen zion. Pentsatzen dut behartsuei emango ziela.



Txomin Arrillaga

Kaleberri

Entzuna badaukat bere historia. Badakit bularrak moztu zizkiotela baina

oraintxe ez naiz gehiago gogoratzen. Gu behintzat gazteago ginenean atera izan gara Usurbilen, baina egia esan, ez askotan. Orduan gabon eskea garrantzitsuagoa zen.

ORBELDI


MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

N•I


Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1. A
Telefona: 36 19 51

Zorrotzeko zubian oinezkoentzat pasabidea



Santuenuko zubian, Zorro-
tzeko zubian, oinezkoentza-
ko pasabidea eraikiko dute.
Oraingo zubia errespetatu eta
Donatoenera jotzen duen zu-
biaren aldean oinezkoentzat
1,20 metroko pasabidea egi-
teko adjudikazioa martxan da
ja. Ertz batetik bestera zabale-
ra librean, oraingo bideari
zentimetrorik kendu gabe an-
tolatuko da espaloia, oinez bi
persona gurutzatu ahal izateko.
Honela, zubiaren harri lan-
dua ikuitu gabe egingo den
pasabidea, Atallutik datorren
espaloiarekin lotuko da. Bide
batez, egungo petrilak dese-
gin eta berriak egingo dira

Atxega jauregia

Atxega jauregia alokatze-
ko nahia agertu dute bi
elkarte desberdinek. Urtarrila-
ren 26an amaitu zen epea eta
2 proposamen jaso dira.

Alde batetik, jauregi osoa
hosteleritzarako erabiltzeko
proiektua aurkeztu dute.
Atxega jauregi osoa jatetxe
moduan antolatzea proposa-
tzen dute, ezkontzak, jaun-
arzteak etb. hartzeko ahalmena
izango duen jatetxe bezala
antolatu nahi dute.

Beste aldetik, behean 80
lagun ingururentzat jatetxea
eta goian 16 logela izango
litzatekeen proposamena ere
jaso du udalak.

Alokairua 75 urterako izango
da eta 100 milioiko errenta
ordaindu beharko dute.

Eguzkitza baserria

Eusko Jaurlearitzak udalari
expropiazioa hasteko
emandako baimenaren aurka
auzi errekurtsua ezarri du
Eguzkitza baserriko jabeak,
Jesus Arizmendik. Auzi hau
luzea izan ohi da bi urte ingu-
rukoa, baina errekurtsio honek
ez du expropiazioa atzeratuko.

Urdairatik Orioko Bentara
doan bidea hobetu ahal izateko,
Udalak expropiazioarekin
jarraituko du. Ondoren,
hemendik pare bat urtera,
auzia kontrakoa izango balitz
egindakoa bertan behera gel-
dituko litzateke.

Oraingoz behintzat expropia-
zioaren ordainketa epeak jarri
dira eta kaltetuek, dirua jaso-
tzera otsailaren 24an pasa
beharko dute.


Saneamendua

Hemendik aurrera Usurbil-
darren simaurra (kaka, pi-
xa...) nora bideratuko den era-
baki zen joan den urtarrilaren
27ko plenoan. Hiruzpalau
proiektu esku artean izan on-
doren Loiolako depuradora
bideratuko dira hondakin hau-
ek. Usurbildik Lasartera joango
dira, hemen bi herrietako go-
rozkiak batu eta tunel batetik
Hernanira bideratuko dira he-
mendik Loiolako depuradora-
ra eraman asmoz.

Hasiera batean Ucin lanto-
kiaren parean depuradora jar-
tzeko asmoa zegoen baina
proiektu honek ez zuen aurrera
egin. Ondoren Zubietan jartze-
ko aukera aztertu zen baina
honekin ere atzera bota zen.
Azkenean Loiolara bideratzeko
erabakia hartu du udalak.



**BAZKARIAK
ETA AFARIAK**
Santuenea 23
Tlf. 36 27 34



TABERNA
Goiz goizetik
gosariak
7 t'erdietan
irekitzen dugu
Irazu kalea, 12
Tlf: 36 02 17



**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
JOSU**
Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54
**INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKI**

81 kontrol inguru 1997. urteko irailetik abendura bitartean

Goizeko 8.30ak dira. Gosaldu ondoren, oraindik guztiz esnatu gabe, kotxea hartu eta Lasartera lanera doa Joxe. Gaur ere berandu dabil; ez ote da Kalezarko zuzengunean kontrolik egongo! Ez du asmatu, gaur ere Guardia Zibilen kontrola dago Kalezarko zuzengunean. Zenbat kontrol jartzen dituzte hauek azken hilabeteetan? Izan ere, 1997. urteko azken hilabeteetan errepide kontrolez inguratuta egon gara. Kalezarren ez bada, Aginagan, Aginagan ez bada Txikierdin, hemen ez bada Irubiden...

"Barka hitzazu eragozpenak, zure segurtasunerako ari gara lanean, Euskal Herri osoaren segurtasunerako, eskerrik asko" dio Hertzainak "Kontrola" abesti zaharrak. Urte asko pasa dira kantu hau egin zutenetik, baina Guardia Zibila nahiz Polizia Nazionalaren errepide kontrolak oraindik ez dira desagertu. Ez behintzat Usurbil aldean. Eguna joan eguna etorri, usurbildarrok kontrol hauek jasan behar izaten ditugu.

1997. urteko azken hilabeteetan segurtasuneko indarrek behin eta berriz moztu dituzte gure errepideak. Irailetik abendura bitartean 81 errepide kontrol zenbatu genituen, 64 Guardia Zibilarenak eta 17 Polizia Nazionalarenak. Aginagako zuzengunea, Kalezarko zuzengunea, Txikierdi, Michelingo aparkalekua eta Irubide dira kontrolak jartzeko aukeratzen dituzten lekuak eta goizeko 8.00ak, eguerdiko 12.00ak eta arratsaldeko 17.00-


18.00ak aldera egin ohi dute lana. Hori da behintzat irailetik abendura arteko gure kontrolen datuak ikusita agertzen zaigun fitxa.

1997. urtean, irailetik abendura bitartean, 81 errepide kontrol inguru jarri dituzte segurtasun indarrek Usurbilgo errepideetan.

Egun batzuetan kontrol bakarra, besteetan bi eta gutxi batzuetan egun berean hiru kontrol ere izan dira Usurbilgo lurretan. Urriaren 16an eta abenduaren 9an, adibidez, hiru kontrol ezarri zituzten, guztiak ordu eta leku desberdinetan. Hilabetea zenbatzen baditugu berriz, urria izan zen errepide kontrol gehien jarri zituzten hilabetea, 22 hain zuzen ere. Irailean eta abenduan 20 zenbatu genituen eta azaroa izan zen hilabete "lasaiena", 19rekin.

Joxek errepide kontrol ugari pasa behar izan ditu azken hilabeteetan. Asteazkenean zehar goizeko 9.00etan hasten da lanean eta kotxea hartu eta Lasartera joan behar izaten du. Bere esanetan, 1997. urteko azken hilabeteetan kontrol ugari pasa ditu. *"Goizean, lanera joaterakoan Kalezarko zuzengunean topatu ohi ditut askotan. Egun onak eman eta aurrera joaten uzten didate. Hala ere, berandu nindoan egun batean alde batera gelditzeko esan zidaten. Nik, handik egunero pasatzen nintzela eta lanera berandu nindoala esan nien arren ez zidaten kasurik egin. Orduerdi inguru egon nintzen han, paperak erakutsi, kotxea goitik behera miatu eta kotxearen kontra geldirik eduki ondoren 9.30etan iritsi nintzen lanera. Guardia Zibil haien erruz ondoren "ordu extra" sartu behar izan nituen".*

Gure aldizkariko argazkilaria ere gauza "xelebrea" gertatu zitzaion. Michelingo zuzengunean kontrola zegoe-



Zubietari "autonomia" ematen dion batzarrak urtebete bete du

Zubietako auzo-batzarra Zeratu zenetik urtebete inguru pasa da. 1996. urteko abenduaren 15ean Zubieta-
rrek beren ordezkariak aukeratu ondoren, abenduaren 22an ofizialki eratu zen auzo-batzarra. Donostia aldeko hiru ordezkari eta Usurbil aldeko beste hiruk osatzen dute Zubietari autonomia piftin bat ematen dion batzordea. Hala ere, denak dute zerbait berdina: guztiak dira zubietarrak eta guztiak daude Zubietaren alde lan egiteko prest.

1996. urteko abendua hila-bete garrantzitsua bihurtu da zubietarrentzat. 22 urteko etenaldiaren ondoren, Zubietak herri-batzarra berreskuratu zuen hilabetetzat hartuko da urteetan zehar. Zubieta geldirik zegoen azken urteetan, ezerk ez zuen aurrera egiten. Donostia eta Usurbilgo udalen arteko konponezina nabaria zen. 1987az geroztik bi udalak harremanetan zeuden, herri bakoitzaren lurak zeintzuk ziren zehaztu asmoz, baina ezin ziren ados jarri.

Hala ere, 1992. urtetik 1996. urtera arteko harremanek beren fruitua eman zuten. Lur mugaketa egitea, ordenazio urbanistikoa egitea eta Zubietak historikoki izan duen administrazioarako erakundea berreskuratzea ezinbesteko zatik ikusi zen. Honela, lur



Zubieta geldirik zegoen joan den urte arte. Gazteak Zubietatik hanka egiteko ohitura zuten, ez baitzen etxebizitzarik egiten. Orain, herri batzarrarekin gauzak aldatuz doaz.

mugaketa egin zen aurrena, plan urbanistikoa ere martxan zihuan eta hainbeste urtetan Zubietaren oinarri izan den herri-batzarra osatzea izan zen hurrengo pausua.

Abenduaren 15ean, Zubietako 322 auzokidek herri-batzarra aukeratzeko aukera izan zuten. Hamar ziren hautagaiak, sei Donostia aldekoak eta lau Usurbilgoak, eta sei ordezkari aukeratu behar zituzten, hiru alde bakoitzetik. Partehartzea altua izan zen, uste baino haundiagoa. Hautakundean parte har zezaketen 322 zubitarretatik 239k eman zuen botua, %74ak. Usurbilgo aldean 150etik 117k eman zuten botua, %78ak. Donostian berriz, %71ak, botu eskubidea zuten 172tik 122k eman zuten bere botua.

Xabier Arregi 67 boturekin, **Iñaki Aizpurua** 44rekin eta **Joxeli Aroztegi** 38rekin Donostia aldetik, eta **Isidro Zal-**

dua 60 boturekin, **Larraitz Izagirre** 56rekin eta **Eusebio Iparagirre** 45ekin Usurbil aldetik. Hauek izan ziren Zubietako herri-batzarra osatzeko aukeratuak izan ziren zubietarrak. Abenduaren 22an ofizialki eratu zen herri-batzarra.

1378 arte Zubieta erabat asketa izan zen, baina urte horretan, bertako biztanleen artean botazioa egin ondoren hirutatik bi Donostiako jurisdikziora eta bat Usurbila joan ziren. Hala ere, Zubietak aspalditik izan du bere burua gobernatzeko autonomia. 1975. urte arte, "alcaldia pedanea" izeneko batzordearen jarduerak nolabaiteko autonomia eman zion Zubietari. Francoren heriotzarekin batzordea ezerezean gelditu zen, baina 1996. urteko abenduan Zubietak berriz berreskuratu zuen hain berea egin duen erakunde berezi hori, Zubietako herri-batzarra.

Zubietako auzo-batzarrak urtebete egin du
ZORIONAK
eta segi aurrera!



Zorionak zubietarroi eta segi horrela!

ALAMÁNDEGI
TABERNA - JATETXEA

Herri-Batzarra: Zubietagintzarako tresna

Lehen urteurrenaren aitza-kian aukera polita eman digu Noaua!-k Herri-Batzarraren lanaz hausnar egiteko. Tarteka, izan ere, komeni izaten da egindakoari erreparatu eta gure jarduera eztabaidagai jartzea.

Hortaz, urteari muga jarri diogun honetan, ikus dezagun zertan egin dugun bete eta, osera, zertan egin zaigun pasa.

Kontuan izan, Batzarraren ikuspegia ematen saiatu arren, iritzi pertsonalak direla segidan datozenak.

Batzarrak erakutsi al du nor-tasunik?

Ekin genionetik Batzarra bera sendotzea izan dugu helburu. Arauak arau eta legeak lege, gure desioa da zubietarrok Batzarra aintzat hartzea eta instituzioek izaera juridikoa aitortzea. Zenbaiti, akaso, hori esan beharrik ere ez dagoela irudituko zaio: "nola liteke bestela!, hauteskundeak eta guzti eginda" esan izan digute. Baina, zorigaitzez, erraz ahaztu da nor izan garen eta nekez aitortzen zaigu nor izan gintezkeen.

Batzarra asentatzeko zereginen etxetik hasi behar dugu. Bai, bai, etxetik. Alamandegitik, alegia. Jabeen komunitateak zalantzan jartzen badu ere, Alamandegi du berezko etxea Herri-Batzarrak. Non bestela? Iraganean Zubietako udaletxe izan da Alamandegi (kartzela eta eskola izateaz gain) eta etorkizunean ere hala behar luke. Iraganean du anparoa Herri-Batzar honek, eta Zubietan Alamandegi du ikur iraganak.

Nor izateko bidean baditu Batzarrak beste lau arazo: lehena, erakunde "bitxia"



dela, gaur egungo antolakuntza administratiboan kabida zaila duena; bigarrena, eskumen apurrak dituela, eta gai askotan bitartekari soil izatea egokitzen zaiola; hirugarrena, arauak aitortzen dizkioten eskumenetan ere udalen pisuak eta inertiak agintzen dutela eta, laugarrena, auto-kritikoagoa, guri ere kosta egiten zaigula azpiegitura osatu eta lan-dinamika emankorra mantentzea.

Hala ere, aurreneko urteko eskarmentua positiboa izan da gai askotan. Abiatu gara, lanean ari gara eta pixkanaka indarra hartuko dugu. Hel diezaigun horri.

Herri-bizitza zertan da?

Bi taldeen ekimenak susperraldia ekarri du. "Kimu Berriak" antzerki-taldeak eskola txikiko haurrak, gurasoak eta beste hainbat kolaboratzaile bildu ditu. Talde txikia da, eskola eta herria bezalakoa. Baina egiten duen lanaren garrantzia sekulakoa da, bai haurrak biltzeko, bai eskola mantentzeko. Kirol arloan, berriz, "Zubieta Pilota Elkarte" herri-lan bikaina egiten ari da errebotearen alde.

Herri-Batzarrak, bere aldetik, Zubietan UEMAn sartzeko asmoa dabilki. Usurbil UEMAn da, eta zeharbidez baita

Zubieta ere. Baina, gure ideia Zubietan bera UEMAn kide gisa agertaraztea da.

Oro har, kultur eta gizarte-arloko ekimenen sostengu izan behar luke Herri-Batzarrak. Horretarako, GURTERTZ elkarte-koekin hitz eginda, elkartearen erabilpena gestionatzeko ardura bere gain hartu du Batzarrak. Hortaz, zerbaitetan hasi nahi eta laguntza behar duenak badaki nora jo.

Zerbitzuak eta obrak.

Maiz keitzten gara zubietarrok gure beharrei ez zaielako behar bezala erantzuten. Egia esan, bi udalen artean banatuta egoteak ez digu batere onik egin. Aurten horretan behintzat aurrera egin dugu. Lortu dugu nork bere ardurak hartzea eta orain ez dago aitzakiarik: zerbait egiten ez bada badakigu nork ez duen egin.

Geneuzkan proiektuen artean, bide-sarearen hobekuntzari eman diogu lehentasuna. Errebueltan arriskutsuak konpontzeko idean, aurten Amiriko kurbarekin hasi gara, baina gure asmoa da sailean urtean errebueltan bat gutxienez konpontzea. Gainera, bide nagusiarekin batera, herri-bide guztiak txukuntzen ari gara, premia handia dago eta.

Zubietak

Beste obra batzuk ere egin dira, besteak beste, ekaineko euri-jasaren ondoren errekek eta bideak garbitu dira, plaza ingurukoei Usurbilgo ura jarri zaie eta plazako pareta-atzea saneatu da.

Zerbitzuen alorrean, konpromiso handiagoa eskatu diegu udalei. Kale-garbitetan, zabor-bilketan, lorazaintzan, bidearen mantenimenduan eta argiterian akordio bat lortu dugu Usurbil eta Donostiako ordezkariekin. Orain da momentua hitzarmen horren errebisioa egin eta gaizki edo erdizka egindakoak zuzentzeko.

Hirigintza ez da herrigintza.

Gauza jakina da hirigintzak sekulako garrantzia duela herri baten izaeran. Zubietak, gaur, bidegurutze batean dago. Orain arte baserri giroko herria izan da, hiri handietatik hurbil baina, aldi berean, ondo bereizita. Hala ere, ia egunero entzuten dugu proiektu berriren bat Zubietan kokatzekotan direla.

Egoera honetan, espero izatekoa zen (halaxe dago jasoa Batzarraren arautegian) bi udalek gure iritzia kontsultatu eta edozein erabaki hartu aurretik zubietarren nahia kontuan hartuko zutela. Baina proiektuen berri prentsaren bidez

edota, kasurik onenean, erabakiak hartuta daudela jasotzen dugu.

Oraitxe bertan, hala-hola dakigula, proiektu sorta ederra dago Zubietan planifikatuta. Esate baterako, Bugatiko frutategia eta kamioientzako zerbitzu-gunea (beste inon nahi ez eta Zubietara datozenak), Realaren futbol-kanpoak (beste hiru alajaina), golf zelaia eta aisialdirako gunea, Iturrarte islan dibertsiorako parkea,... Horiek denak egiteko ez zaigu iritzirik eskatu, ez informaziorik eman. Hori da errealitatea.

Gainera, "Plan Territorial Parcial" deitutakoan jasotzen denez, Zubietak "Donostialdeko" zerbitzu-gune eta komunikazio-gune izateko bokazioa du. Plan hori oso agresiboa da (Usurbilentzat ere hala da), eta besteak beste, Zubietan etxegintza masiboa proposatzen da, bailarako beharrei erantzuteko. Plan hori iraingarria da zubietarrentzat. Bertakoentzat etxerik egin ez eta kanpotarren beharrak asetu behar ote ditugu!

Behingoz orain dugu aukera zubietarrok hainbat urtetako lana eta borrokaren ondoren gure etxeak egiteko. Plan Partzialaren hasierako onarpena eginga dago bi udaletan

eta orain ez daukagu aitzakiarik. Orain gure esku dago plan hori aurrera eramatea. Ea diruzalekeria ez den nagusitzen eta etxegintzari aurki ekiten diogun.

Esan dugu hasieran hirigintza ez dela herrigintza. Askok Donostiako auzo ikusten gaituzte eta, hala, herri gisa gartzeko eskubidea ukatu egiten digute.

Etorkizuna.

Aurrera begira jarrita, Herri-Batzarrak epe motz eta erdirako egitasmoak dauzka.

Premiazko obrak eta hobekuntzak egin nahi genituzke epe motzean, ahal dela, udal zerbitzuak hobetuz. Etxebizitzen arazoa ere hortxe dugu, azkar tratatu eta konpondu beharreko gaia.

Baina ez litzateke egokia izango egunerokoarekin itsutu eta perspektiba galtzea. Zubietak, etorkizunari begira, zer izan nahi duen erabaki beharra dauka.

Has gaitezen. Ikas dezagun nolakoa izan den gure iragana. Osa dezagun gure artxiboa. Pribatizazioari buelta eman eta geuregana ditza-gun espazio publikoak. Konpara dezagun gure herria antzeko beste herriekin eta ikas dezagun haien esperientzietatik.

Eztabaida eta hausnarketa prozesu honi lehenbailehen ekin nahi diogu. Aurten gure iraganaren arrastoak bilduko dituen lan bati helduko diogu. Azterlan horrek emango digu, seguru asko, zer pentsa eta nondik abiatua.

Azken batean, herri-proiektua diseinatu behar dugu. Bestela, orain artean bezala, hirigintza arrotzak hartuko dio gaina Zubietagintzari.

Xabier Arregi

Zubietako Alkatea



Zubietak

“Gutxienez bide bat ireki da, bidea eginez egingo da”

Zubietako herri-batzarrak urtebete bete du. Zein da zuen balorazioa?

Balorazioa ona da. Herri-batzarra aukeratzerakoan partehartzea haundia izan zen eta abiatu behintzat ondo abiatu zen. Lana egiterakoan asmatu dute. Jarritako helburuak eskuragarriak ziren, batzuk eskuratu dira, beste batzuk ez eta beste batzuk erdizka. Helburu nagusia bete dute nire ustez, interlokuzio lana eta prozesuak azkartzea. Hainbat zerbitzu egokitu dira Zubietan bizi den jendeari begira eta herri-batzarrak jessio zuzenago bat eraman du.

Gutxienez bide bat ireki da eta antolaketa bat badago. Bidea eginez egingo da.

Zeintzuk izan dira Donostiako udalak aurkitu dituen arazo nagusiak?

Zubietako herri-batzarra bi udalekin egon da harremanetan. Udal bakoitzak bere ohiturak, tradizioa, funtzionatzeko erak ditu eta herri-batzarra horietara moldatu beharrean aurkitu da. Donostiako udalean arlo bakoitzerako zinegotzi bat dago eta akordioak hoiekin landu behar izan dituzte, bana-banaka. Funtzionatzen zuten bideak bere horretan utzi eta



Koro Garmendia.
Donostiako zinegotzia

beste batzuetan bide berriak ireki behar izan dira.

Eta Zubietak erabateko autonomia eskatuko balu?

Legez ezinezkoa litzateke, baina hori alde batera utzita hirigintza plangintzak herrialde mailan egiten dira gero eta gehiago, ea udal batek eman behar dituen zerbitzuak kontutan hartuta 500 biztanleko herria antolatzea ez da baikorra.

“Kezkatuta nago plan partzialarekin, arazo haundiak egon litezke”

Zubietako herri batzarrak urtebete bete du. Zein da zuen balorazioa?

Balorazioa positiboa da. Pausorik garrantzitsuenak eman dira eta ematen ari dira. Urtebete honetan Zubietako herri-batzarra gorpuztu egin da, Donostia, Usurbil eta herri-batzarraren harremanak haundiagoak dira orain. Hala ere, aurrez pentsatutako lanen inguruan eman diren pausuak nahikoa mantso doaz. Guk pentsatzen genuen herri-batzarra eratu ondoren gauzak egiten hasiko zirela, bada eta Zubietan zer egina, baina ez

da horrela izan. Zubietak bi herri-tan banatua dago eta horrek ohituraaldaketak sortzen ditu udalengan, elkarrekin gehiago hitzegitera behartu gaitu.

Zeintzuk izan dira aurkitu dituzten arazo nagusiak?

Arazo nagusia etxebizitzaren kontua izan da. Plan partziala martxan jarri zen, baina zenbait jabetza pribatuk alegazioak jarri zituzten eta honek atzerapena dakar. Ni kezkatuta nago plan partzialarekin, lehen ere arazo haundiak izan ziren eta orain ere oztopo haundiak jarriko dituzte. Nire esperientzien arabera, arazo haundienak



Joxe Antonio Altuna.
Usurbilgo alkatea

Zubietan izaten ditugu honelako gauzetan. Nahiz eta akordio batera iritsi beldur haundia dut nik.

Eta Zubietak erabateko autonomia eskatuko balu?

Niri ondo iruditzen zait, ez dut arazorik ikusten. Zubietak hor egongo litzateke, ez luke haizeak eramango eta elkarrekiko harremanak ezinbestekoak izango lirateke.

Zorionak opa dizkizuegu zubietar guztioi!

ERREKONDO ZERRATEGIA

Eraikuntzetarako:


Haritza
Piñu Alertza

Altzariak egiteko:

Haritza Gereiza
Gaztaina Lizarra

ZUBIETA

☎ 36 22 37




Erretegia - sagardotegia

IRIGOIEN

Euskal sukaldaritza
Haurrentzako jolas parkea

Zorionak zubietar guztioi!

Tel.: 37 28 75 Zubietak



Guardia Zibil eta Polizia Nazionalaren patrullek bost puntu hauetan jarri ohi dituzte errepidetako kontrolak. Horrez gain, Zubietan edo Urdaigagan ere noizbait kontrolik jarri izan dute

la entzun ondoren, kotxea hartu eta bertara joan zen argazkiren bat atera nahian. Txikierrdi pasa, kotxea mantso-tzen hasi eta dokumentaziorik ez zuela ekarri ohartu zen. Eskerrak ez zuten gelditu, ez baitzeraman ez nortasun agiririk ezta gidatzeko karnetik ere. Argazkirik gabe eta kaka eginda itzuli behar izan zuten Usurbila.

Zer eskubide ditugu kontrol batean?

Baina zer eskubide ditugu guk errepide kontrol hauen aurrean? Zer egin dezakete segurtasuneko indarrek, zer ez?

Errepide kontrol batean gelditzean, ibilgailuan doazenei nortasun agiria eska diezaiekete eta identifikatu ahal izateko herritarrak derrigorrez erakutsi behar du NANA. Honekin, segurtasun indarrek, agirian dagoen argazkia eman dion pertsonarena dela eta nortasun agiriko datuak benetazkoak direla egiaztatuko dute. NANaz gain, segurtasun indarrek,

gidariari ibilgailua gidatzeko baimena eta segurua eska diezaiekete. Egiaztapen hauek egiteko minutu batzuk besterik ez dituzte behar, datuak egiaztatzerakoan ezin dute nahi adina denbora pasa. Bestalde, errepide kontroletan gelditzean galdera ugari egiten dituzte segurtasun indarrek; legearen arabera, nondik gatozen, nora goazen... bezalako galderak erantzunik gabe utzi daitezke.

Errepide kontrol batean nortasun agiria eta ibilgailuaren paperak eta segurua eskatzeko eskubidea dute segurtasun indarrek

Ibilgailuan doazenak identifikatu ondoren, kotxearen zirkulazio baimena eskatu eta kotxea miatzeko ahalmena dute segurtasun indarrek. Honen aurrean ezin da ezer egin, kotxea miatzeko eskubide osoa baitute.

Miatzerakoan gauzei begirada bat emateko ahalmena besterik ez dute, beti ere delituztat har daitekeen zerbait daramaten edo ez egiaztatzeko. Hala ere segurtasun indarrek beti aitzakia berdina jartzen dute: bila dabilzan objektua txikia dela eta miaketa sakonagoa egin beharrean daudela esan ohi dute.

Errepide kontrol batetik pasatzerakoan, hormari begira edo mendira begira ikusi ohi ditugu bertan geldituta dauden ibilgailuko kideak. Legeak esaten duenaren arabera miaketa egiterakoan, miatzerakoan parte hartzeko eskubidea du ibilgailuko gidariak, miaketa nola egiten duten ikusi ahal izateko kotxearen aurrean egon daitezke. Gainera, miaketan bi lekuko izateko eskubidea jasotzen du legeak.

Legeak jasotzen ditu bai, eskubide hauek, baina segurtasun indarrek ukatu egiten dituzte legeak jasotzen dituen eskubide horiek. Honen aurrean ezin ezer egin!

Josu Aranberri

47 usurbildarrek eman zuten odola

Aurten ere usurbildar guztiek odola emateko aukera izango dute. Urtean zehar sei emanaldi izango dira eta joan den urtarrilaren 19an izan zen odola emateko lehen aukera. Usurbilgo anbulategian 47 usurbildarrek eman zuten odola eta bi izan ziren emanaldia lehen aldiz egin zutenak. Pertsona bakoitzari 0,4 litro ateratzen zaionez 18,8 litro odol bildu ziren Usurbilen lehen emanaldi honetan, iaz baino hiru litro gutxiago. Hala ere, odola edozeinek eman dezakeela gogoratu nahi dute odol emaleen elkartekoek. Zenbait baldintza bete behar badira ere, hurrengo emanaldira gerturatu zaitezke, bertan esango dizute odola eman dezakezun ala ez.



Anbulategi zaharreko lanak amaitzeko epea atzeratu



Kaleberriko zahar egoitza berria egiteko anbulategi zaharrean egiten ari diren lanak amaitzeko atzerapen eskaera hontzat hartu du udalak. Anbulategi zaharreko lanak 1998. urte hasierarako bukatu behar zituzten, baina Kaleberriko zaharrek Zubiaurreneako egoitzan jarraitu beharko dute martxoaren erdi arte. Kontratastak, lanen atzerapena eskatzeko, zenbait arrazoi jarri zituen mahai gainean. Aurrez aurrekusi gabeko sanemamendu lanak egin dira, lehenengo pisuko bizi-lagunen etxeeetako kanpoko hodiak berritu, fatxadak eta urbanizazioan proiektuz kanpoko lanak egingo dira... Martxoaren erdia da epea berria.

Kirikoketa txalaparta taldeak diskoa atera nahi du

Txalaparta doinuak diskoan entzuteko aukera izan daiteke 1998. urtean. Usurbilgo Kirikoketa txalaparta taldeak disko bat ateratzeko asmoa du. Iñaki Salvador eta Zilboresteak atera zuten diskoan kolaboratu ondoren txalaparta oinarri nagusi izango duen diskoa atera nahi dute Jexux Artze, Iker Muguruza, Pello De La Cruz eta Mikel Artolak. Maketa bat grabatu dute ja, baina oraindik zehaztu gabe dute diskoaren kontua. Txalapartaren doinuak jantzi nahian gonbidatu ezberdinak izango dituzte, Zumarteko koru txikiak ere abestuko du eta Nafarroan grabatutako kanpai hotsak ere sartu nahi dituzte.



TXURRUT EDARITEGIA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 36 00 80

MAHUKA

GAZTE DENDA

Merkealdiak
neguko arropetan

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



**INTSUMISIO EGUNA
USURBILLEN**

Kakitzat talde antimilitaristak antolatzen duen Intsumisio eguna Usurbilen egingo da aurten. Hala erabaki zuten behintzat Kakitzat taldekoek. Udalak oraindik baiezkoa eman ez duen arren, urriaren 11ean Intsumisio eguna Usurbilen egingo dela ziurtzat eman daiteke. San Praskuen ondoren, intsumisioen urteroko festa ospatzeko Kilo-metroak eta Nafarroa Oinezaren arteko aste-burua aprobetxatu nahi dute,

Azken unekoa



Euskal Herriko Goi Justiziako epaitegiak prebentzio delituztat har dezake orain dela lau urte Usurbilgo udalean gertatutakoa. Zenbait egunkariaren esanetan garai hartan, enterratzaile lanpostua betetzeko lehiaketa egin zenean, azken elkarrizketan usurbildar izateagatik balorazio haundiagoa eman izana leporatzen zaio udalari. Joxe Antonio Altunaren esanetan, beraien ez dute ezeren berririk, eta ez omen die erabaki honen inguruko erabakirik bidali.

PARIS ATZEKO PARKEAREN PROIEKTUA

Paris etxearen atzeko parkearen proiektua egiteko oinarriak onartu ditu udalak. Jaso behar dituen baldintza eta eraikuntzak: Gaur egun dagoen aparkaleku kopurua mantenduko da, nahiz eta kopurua aldatu; 300 m² inguruko estalpea azoka edo antzeko ekintzak egiteko; bolatoki estalia; haurrentzat jolastokia eta lurazpiko aparkalekurik ez du izango. Obren kostuak ez du 55.200.000 pezetara baino haundiagoa izan behar.



Joan den urtarrilaren 23an kontzertua izan zen Usurbilen. Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatuta No Way, Ekon eta Usurbilgo Larrua Truk taldeek beren kantuak eskaini zituzten Udarregi zaharreko patioan. Kanpoko bi taldeak izan ziren oholtza gainera igo ziren lehenak. Ondoren, herriko taldearen abestiak entzuteko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren guztiek. Honekin batera, Iñaki Udabe eta Harkaitz Iparragirre taldekide berriak ikusteko aukera ere izan zen.



San Sebastian eguna iritsi baino lehen entzun zuten Usurbilen danbor hotsa. Udarregi ikastolako ikasleek, danborra eta makilak hartu, txapela buruan jantzi eta Sarriegiren martxak jo zituzten San Sebastian egunaren bezperan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, danbor burrunda nagusitu zen bai Kalezarko ikastolan, baita Kaleberrikoan ere. Txaranga doinuak jarraitzen nahikoa lan izan arren, ez zuten batere gaizki egin, hurrengo eguneko eguraldia ikusita...



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko degustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

Indartsu datoz Usurbilgo pelotari gazteak

Gazteak dira oraindik. 12-13 urte besterik ez dituzte. Etorkizunean zer izango diren nork daki, baina orain behintzat, pelotan ondo moldatzen dira. Asier Portu eta Ibai Orena dira. Urtarrilaren 24ean Azpeitiko Illunpe elkar-teak antolatutako Gipuzkoa mailako txapelketako finala jokatu zuten infantil mailan.

Ez zen final bat jokatzeko zuten lehen aldia, aurrez ere kopa ugari baitituzte etxean, baina urduritasuna nabarmentzen zitzairen. Aurreko partidua ikusterakoan ezin geldirik egon, "Berotzen hasiko al gara Enrike? Noiz bukatuko dute?". Finalari ekiteko gogoz zeuden.

Finalerdietan Azpeitiko bikotea utzi zuten atzean. Ez omen zen partidua samurra



izan. Gaizki hasi ondoren 9-1 galtzen jarri ziren eta partidua aldapa gora jarri zitzairen ohartu baino lehen. Hala ere, ez zuten etsi eta markagailua parekatu ondoren 18-17 irabazi zuten Ibai eta Asierrek. Asierren esanetan, "lehen ere jokatu genuen bikote honen kontra. Usurbilgo txapelketaren finalerdietan izan zen eta 18-17 galdu genuen. Orain, berriz, alderantzizkoa gertatu da".

Finalean Altuna-Orozko bikote Beasaindarra izan zuten aurrez-aurre. Partidua hasi aurretik, Enrike Huizi entrenatzaileak bazuen beldur pisat. "Atzelaria oso jotzailea da. Ondo jotzen dio ezker nahiz eskubiz, eta gureak baino indartsuagoa da. Hala ere partidua jokatu egin behar da".

Partidua hasiera kaxkarra egin zuten Asier Portu eta Ibai

Orenak. Ezin zuten tantorik egin eta 9-0 galtzen jarri ziren. Ondoren ere, gauzak bide beretik joan ziren, 10 tanto baino gehiagoko aldearekin izan zuten Beasaindarrek. Hala ere, partidua amaieran galdu egin zuten arren, lanak eman zizkien. 17-11 galtzen joatetik 17-15era hurbildu ziren, baina azkenean txapel-dun ordeak izatearekin konformatu behar izan zuten.

Etorkizunean pelotari politak izan daitezke. Ez hauek bakarrik, astean bitan frontoian Enrikeren agindupean aritzen diren ume asko ere bai. Izan ere, Ibai eta Asier ez dira Azpeitiako txapelketa horretan hartu duten usurbildar pelotari bakarrak izan. Hauekin batera, beste hainbat gazte dabilza Titin edo Elkoroz izateko ametsetan murgilduta

Josu Aranberri

ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7etatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25 60



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



ALBORTA

HARATEGIA

Behoko kalea, 4
Atxegalde

TEL. 36 57 42

TEL. 36 61 97

URTARRILAK 31 larunbata

- **Areto futboleko partidua** (m): **Hosfrinor- Xabier Edaritegia**. Altzako kiroldegian arratsaldeko 18.00etan.
- Bigarren nazionaleko **eskubaloi partidua** (2N): **Escolapios- Usurbil K.E**
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (m): **Usurbil K.E- Urdaneta**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.30etan
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil K.E- Urdaneta**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** bigarren erregional mailan (m): **A. Ondarroa- Usurbil F.T.** Ondarroan 4.15etan.
- **Futbol partidua** kadete mailan Harane futbol zelaian(m): **Usurbil F.T. - Euskalduna**
- **Saskibaloiko partidua** (m): **Usurbil S.T - Askatuak**. Oiardo kiroldegian 10.00etan hasita.

OTSAILAK 1 igandea

- **Futbol partidua** erregional mailan(n): **Usurbil F.T - Zumaiako**. Harane futbol zelaian

- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Usurbil F.T - Elgoibar**. Harane futbol zelaian

OTSAILAK 6 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Gubi** Oiardon, 20.45etan.

OTSAILAK 7 larunbata

- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (n): **Usurbil K.E - Zarautz**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.30etan.
- Bigarren nazionaleko **eskubaloi partidua** (2N): **Usurbil K.E - El Pilar**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan.
- **Futbol partidua** erregional mailan (n): **Antonio - Usurbil**
- **Futbol partidua** bigarren erregional mailan (m): **Usurbil F.T- Loyolako**.
- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Usurbil F.T - Mondragon**. Harane futbol zelaian
- **Saskibaloiko partidua** (m): **Beti Gazte - Usurbil S.T** - Lesakan arratsaldeko 20.15etan.
- **Futbol partidua** kadete mailan (m): **Danena - Usurbil F.T.**

EMAITZAK

FUTBOLA

Urtarrilak 17-18

Usurbil F. T **4** - Alde Zaharra **4**(2.R)
Intxaurren **4** - Usurbil F.T **2**(ju.)
Usurbil F.T **2** - Amaro **0** (ka.)
Usurbil F.T **1** - Aloña Mendi **0** (n.)

Urtarrilak 24-25

Usurbil F.T. **0** - Allerru **4** (ju.)
Orioko **2** - Usurbil F.T **2** (ka.)
Almen **4** - Usurbil F.T **0** (n.)

ESKUBALOIA

Urtarrilak 17-18

Portugalete **18** - Usurbil **15** (2.N.)
Usurbil **17** - Arrate **34** (ju.m)
Usurbil **19** - Arrate **14** (ka.m)

Urtarrilak 24-25

Usurbil **21** - Y Aloña Mendi **20** (2.N.)
Bidasoa **31** - Usurbil **21** (ju.m)
Bidasoa **26** - Usurbil **16** (ka.m)

SASKIBALOIA

Usurbil S.T 45 - Elgoibar **69**

Zumaiako **65** - Usurbil S.T **30**

ARETO FUTBOLA

Leizaran **3** - Xabier Edar. **3**

Xabier Edar. **1** - Elgoibar **1**

Laburdurak

R.: erregionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskek
ju.: jubenila m.: mutilak

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)



Ekaitz

Bideo eta Argazkiak

Usurbil tlf 36 14 87 OIARTZUN

Zinkildegia

lantzada,
gizoneshan bat arropa,
haurren jantziak,
eta etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil


Fernando Txueka
43 urte
**Getarian jaioa
baina Usurbilen
bizi da,
Arrobitxulon**
**Ginekoloa
Poesia oso gus-
tokoa du**

Haizearen koloreak

Lerro hauek idazterakoan, burura hagitz gauza datozkit gaitzat. Agian osasunaren ari luzeari heldu, dagokidan bezala? Bada uztak beste bate-rako, zidan barrenak!

Marinel herrikoa izaki eta gazta-roa gogoan. Joandako urte zaharrea, nire gaztetako lagun min bati, arrantzako itsasontzia Atlantikoko uretan hondoratu zaio. Gizarajoak patro lanetan ari zenetik galtzen zuen bigarren itsasontzia zen Kantauriko gure itsaso makurrean. Bizitzarik ez zen galdu eta gaitzerdi. 1913ko galerna zakar hartan bere familiako sei gizon itsasoak irentsi zituen une batean... "Destinoak esaten zidak itsasora gehiago ez joateko!" esan zidan begietan malkoa eutsi ezinik, itsasoa oraindik ere biziaren eske baletor bezala.

Bagenituen elkarrekin abentura eta barrabaskeri ugari eginak bere osaba Sabinoren motortxiki zahartuarekin; hau gure itsasoko maisua zen, ezindua eta gaixo zegoen eta berak, ia mutikoak ginela, esandako itsas-lekuetan erriatzen genituen sare eta tresak... Aitzpurupean, Izustarrian, Gaztanbiloten edo Sakiluko bajan. Ausardia genuen hartarako! Askotan esana ez genion aintzat hartzen eta gure kasa ibiltzen ginen izua sartu zitzaigun arte. Izan ere, egun batez gure kontura ia izpazterra jo genuen eta bertan bukatu.

Benetako amets eta kemenaren indar garaia da gaztetasuna. Nire lagunaren utopia, bere osaba Sabinoren ondorengoa izatea zen. Arrantzale zahar harek ikaragarritzko jakinduri naturala eta erakartasuna zuen, itsas azalerari mota askotako izenez deitzen zion haize ezberdinak koloreak balituzte bezala izendatzen

zituen. Irudimena eta lilura behar-rarekin josten zigun: "itsasoan bizitzeko arraina harrapatzen jakin behar da bizitza galdu gabe!... Xaxiu zabilzatenean beti bi uheren artean bota zanbroa! Ostantzean sortaldeko izarra aurkitu!". Nire lagunaren utopia itsasoko ogibide eta izakera bihurtu zen. Ni, aldiz, beste utopiak pardedean, ikus ezinezko haizeen koloreek oroimenean nituela, herbestera joan nintzen ikasketak egitera. Valladoliden nengoela hil zitzaigun osaba Sabino eta aldizka itsas zabaletik zanga bakartia lurreratzen ikustean, bere oroimena eta esanak gogorra datozkit.

Gazte garaiko utopia (Tomas Moro pentsalariak emandako hitza) bete ezin daitezkeen ilusio eta nahien amets garai paregabea da bizitza batean. Bi esaldi nahikoa dira, ausnarketa haundirik gabe, egi osokoa delakoan, arrazoi borobilenaren jabe garela

pentsatzeko eta baita amiltzeko ere. Gazte andanen belaunaldi bakoitzak balore haundiko ekimenak dakarzki, aurrekoek bezala, zaharrak gaindituko dituenak. Orain sumatzen ditudanak: herri mina eta euskara, insumisioa, gai existentzialak, sexu

harremanak, askatasuna, hirugarren mundua, antisorgailuak... eta abar luzea, bizitzaren arbola utopiaren adarrez osatzen den enborra litzateke. Urteekin, iparra galdu gabe, batzuek haundituz eta errotuz zuhaitzaren irudia har dezakete eta Ulisesen antzera, etenik gabeko itsas bidai korapilotsuan mila koloretako haizeak astindu ondoren Itakako portura iritsi.

Bejondeizuela utopiaren koloreak mantentzen dituzuenoi!

Xaxiu: arrantza mota bat

**Zanbroa: erditik doan
aparejoa.**

**Uhera: itsasontziak uretan
daraman arrastoa.**

**Zanga: itsasoko egazti
erraldoia, bizitza
ur zabalean egi-
ten duena**

**Ostantza: ilunabar ondo
rengo argiunea**

Haur korua: etorkizun haundiko ahotsak

Zumarte Musika eskolako haur koruak 1991. urtean abestu zituen lehen partiturak. Gaur egun, 80 bat haur dira bertan abesten dutenak. Hauetako batzuk datorren martxoaren 1ean Zumarragara joango dira, lehiaketan parte hartzera.

1991. urtean Zumarte Musika Eskolako arduradunek solfeoa egiten zuten ikasleek koruan ere parte hartu behar zutela erabaki zuten. Lehen urte haietan **Boni Iparragirre** izan zen koruaz arduratu zena, baina 1993. urtetik hona

Imanol Elizasu Pasai Antxotarra da bertako zuzendaria. Honen esanetan, koruan derrigorrez parte hartzeko erabakia oso garrantzitsua izan zen: "Niretzat horrelako erabakiak hartzean dago gauzak sortzeko giltza. Izan ere, gaur egun haurrak mila gauza ditu egin eta aukeratzeko, eta honelako erabakiak sendotasuna ematen du. Kontuan izan behar da ia beste herri guztietan korua aukerazkoa dela".

Haur eta gazte kopuru ederra

Gaur egun koru txikia eta haur koruan 6 eta 17 urte bitarteko 80 bat haur daude. Imanolek aipatu digunez,



"haur kopuru ederra da hau, baina orain saiatzen ari gara solfeoa amaituta gazteak koruan mantentzen, eta pixkanaka lortzen ari gara. okerrena da haur koruak ez duela jarraipenik gazte koruan. Hori proiektu bat da oraindik, ez daukagu presarik".

Imanolek haur bakoitza eza-gutu beharra dauka. "Bakoitzarekin banaka egoten naiz. Ezagutu egin behar ditut bakoitza nola dabilen ikusteko. Gero ahotsa landu eta erabiltzen irakasten saiatzen naiz, gauza guztietan egin behar den bezala. Ni saiatzen naiz haurrak ondo pasa dezaten, baina argi daukate lan egin beharra dagoela".

Horretarako haur koroak aste-an bi entsaiu egiten ditu eta txikiek, berriz, astean behin.

Entsaiu hauek, ordea, gehituz joaten dira lehiaketaren bat tartean dagoenean. Izan ere, datorren martxoaren 1ean, goizez, Zumarragako Antiguako ermitan abestu beharko dute. "Azken urtetan Erreteriako gabon lehiaketan hartu dugu parte, eta bertan bigarren postuan ere geratu izan gara. Aurten, berriz, Zumarragara goaz, Euskadi mailako lehiaketara. Ez dakit zenbagarren postuan geratuko garen; maila altua dela badakigu. Hala ere, lehiaketarena lana gogorrigo egiteko aukera da".

Haur abesbatzek duten arazorik haundienetako bat beraienezako moduko abestiak ez egotea da. "Edo haur oso txikientzako abestiak edo eta oso maila haundiko kantak daude. Hori dela eta, kanta egokiak bilatzen saiatzen gara, edo moldaketak egiten ditugu. Oraindik, hala ere, lan asko dago egiteko bai maila honetan eta baita koru mailan ere".



Kanpoko sagarraz egindako sagardoa

Iritsi da txotx garaia. Urtarrilaren amaieran hasita milaka pertsona hurbilduko dira sagardotegietara. Hala ere gutxi antzemango dute sagardoaren kalitatea zer nolakoa den, edo eta nongo sagarrarekin egina dagoen. Aurten zer nolako sagardoa edango dugun jakin asmoz, **guk, Usurbilgo zenbait sagardotegietara jo dugu.**

laz bertako sagarra erruz izan zen. Sagardoa egiterakotan hemengo sagar ugari erabili zen. Aurten, ordea, ez da horrelakorik gertatu. Usurbilgo sagardotegietako kupeletan ez duzu soilik bertako sagarraz egindako sagardorik aurkituko.

Illunbe sagardotegian 50.000 litro sagardo egin dituzte. Hemen ere kanpora jo behar izan dute sagar bila. Joxe Angel Aginagak adierazitakoren arabera sagardo ona dator aurten. *"laz hemengo sagarra erruz izan zen eta harekin moldatu ginen. Aurten, ordea, Galizia eta Asturiasetik ekarri dut sagarra. Sagarra ondo etorri da eta sagardoa ere ondo etorriko den esperantza badut. Bertako sagarra asko usteldu izanak ez du esan nahi sagardo txarra datorrenik, ondo geratu zena ondo atera baita".*

Araeta Sagardotegiko **Ramon Kaminoren** esanetan, *"bertako sagarra gutxi izan da aurten. Guk 80.000 litro egin ditugu, eta horretarako Galizia*

eta Asturias aldetik ekarri dugu sagarra. Bertako sagarra gutxi izan da, goizegi etorri zen eta horregatik aurten kanpoko sagarra gehiago erabili dugu". Sagardoaren kalitatea ona omen da, baina eguraldi nahasiaren ondorioz nolabaiteko beldurra dago sagardogileen artean. *"Sagardoa goizegi etorri da aurten. Orain kupeleko sagardoa ona dagoen arren, eguraldi honekin, txartu ez dadin, lehenago enbottleatu beharko da sagardoa. Sagardo ona enbottleatu eta gero oliotzeko arriskua dago".*


Bertako sagarraren eskasia da beraz, aurtengo sagardoaren ezaugarri nagusia. Sagardoaren labelaren ametsa urrun dago oraindik, kanpotik sagar asko ekartzen baita. Aginaga sagardotegian azken hiru urtetan bertako sagarrarekin egin zuten sagardoa, aurten erdia bakarrik erabili dute hemengo sagardoa. *"Kupeletan sartu ditugun*

55.000 litroak egiteko Asturiasetik ekarri behar izan dugu sagarra. Erdibana egin dugu, erdia bertakoa eta erdia Asturiasekoa -dio Migel Joxe Errastik- sagarra azkarregi etorri zen, ez zen uzta ona izan eta horregatik Asturias aldeko sagarra ekarri dugu". Hala ere sagardo oso ona datorrela aurretaru dugu Joakinek.

Saizar Sagardotegian egin dute sagardo gehien aurten ere. lazkoa gaintitu eta milioi bat litro egin dituzte Galizia, Asturias, Frantzia eta bertako sagarrarekin. Ramon Iburgurenek adierazitakoaren arabera, *"Usurbilen sagar gutxi izan da, Goiherri aldean baino gutxiago. Eguraldiak zerikusi haundia izan du horretan, eguraldi beroak sagarra goizago etortzea eragin baitu."*

Bertako sagarra gutxi, baina sagardoa erruz. Txotxetik edan nahi duenak orain du aukera. Txotx!

Josu Aranberri




BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42



Aginaga
36 27 73

SEKAÑA

BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Imanol Zarautzen bertsoak

Usurbildarrok iritsi zaigu
espero gendun garaia
jaki ederrez presta dezagun
sagardotegiko mahaia
bakailua ta txuleta ona
intxaurrek eta gaztaia
mama goxoaz disfrutatzea
sagardozealeon nahia

Asteburutan asetzen digu
aste guziko egarrria
ura bezala ez baita berau
soilkan freskagarria
beti izan da gure herriaren
gauza adierazgarria
denon artean defenda zagu
gure sagardo berria

Beti izan da gure Usurbil
sagardoaren laguna
maiatz aldean ospatutzen da
bertan sagardo eguna
herriar denok hainbeste maite
eta gozaten deguna
horrexegatik degu Usurbil
oso herri ezaguna

Erremedioen txokoa

BEHERAKOA GELDITU, URDAILA ASENTATU ETA BURUKOMINARENTZAT

Behar duguna

- *Baso bat ardo
- *Kamamila
- *Ogi xehetua

Lehenik kamamila eskukada bat (100 gr.) ardotan egosiko dugu. Irakiten hasten denean papila bat egingo dugu belar hori eta ogi xehetuarekin. Gero, zapi edo gasa batean ipiniko dugu nahasketa eta enplasto hori urdailaren gainean jarriko dugu gau osoan zehar.

Lehiaketa



Znbat eskailera daude
Santuenetik Urdaigara
igotzeko? Asmatzaileen artean
SEKAÑAN bi lagunentzako afaria
zozketatuko da.

Aurreko erantzun zuzenen artean bati egokitu behar **Bordatxoko** afaria, eta oraingoan **Jon Arrutiri**. Zorionak!



Patri jatetxeko
saria jasotzen
Alaitz Artola
zubietarra



ENDIKA
ZINKUNEGI
ZUBIZARRETA

"apelliduak abizendu"
Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!

3er diyo?

Bete-bete Urruñako ikastolaren alde

Urruñan 30 milioi pezeta behar dituzte ikastola eraikitzeko. "Harriz harri, herriz herri Urruñako ikastolak erronka du jarri" lemapean Iparraldean nahiz hegoaldean diru hori biltzeko kanpainari ekin diote. Usurbila ere iritsi da horren oihartzuna. Iaz Zuberoko Eperra ikastolari eman zitzaion laguntza, aurten Urruñako ikastolari lagundu asmoz talde bat sortu da.

Urruñako ikastola jaio berria da. Hiru urte besterik ez ditu, 1995. urtean ireki baitzituen ateak. Irailean Urruñako biztanleei egindako inkestaren ondoren, hamar familia inguru beraien seme-alabak Urruñako ikastolan izenemateko prest agertu eta 95/96 ikasturtean abiatu zen hamalau haurrekin.

St. Vicent elkarteak (parrokiar elkarte) utzitako lokal batean eman zituzten lehenengo pauso haiek. 40 m² ko gela bat eta jolaslekutzat hartu zuten kanpo aldeko lur zatia ziren ikastolaren euskarri. Hala ere, lokal hau txikia gelditu zaie Urruñako ikastolakoei. Ikasturte honetan haur kopuruak gora egin ondoren, 60 m²ko lokal prefabrikatu bat alokatu behar izan dute.

Egoera honetan jarraitzea ezinezkoa zaie Urruñako ikastolakoei. Ikastola baterako lokal egokirik gabe jarraitzen dute eta horrek erakargarritasun gutxi eragiten du bere haurrarentzako eskola bat



biladabiltzan gurasoentzat. Horrekin batera, lokal horiek pribatuak dira eta bertan jarraitzeko segurtasunik ez dute. Hau dila eta, kostua gurasoen kontura mantentzea ezinezkoa da.

Egoeraren larritasunaz jabetuta ikastola berria eraikitzeko konpromezua hartu dute, baina horretarako laguntza handia beharko dutela badakite. Ikastola berriaren aurrekontua 30 milioi pezetakoa izan arren, administratiboki ez dute sosik jasoko. Horregatik zabaldu dute kanpaina, Euskal Herri osoan dirua bildu nahi dute.

Usurbil Urruñako ikastolarekin

Usurbildik ere ez zaie laguntza ukatuko, Urruñako umeek guztien laguntza behar baitute. Iaz Zuberoko Eperra ikastolarekin egin zen moduan, aurten, apirila bitartean Urruñako ikastolaren alde dirua ateratzeko konpromezua

hartu du talde batek. Aitzaga elkarte, UEMA, AEK, EHE, **Noaua! Kultur Elkarte** eta beste zenbait pertsona hasi dira kanpaina aurrera eramaten.

700.000 pezeta lortzea da talde honen helburua. Gabonetan Oiarde kiroldegian Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldiarekin ateratako dirua Urruñako ikastolarentzat izan zen. Horrez gain, beste hainbat ekimen eramango dira aurrera. Laguntzak jasotzeko bi kontu korrante ireki dira Usurbilen: Kutxako 2101 0069 18 001695237 zenbakia eta Euskadiko Kutxako 3035 0140 34 1400012462 zenbakia. Taberneta eltxetxoak jarriko dira, ezta egongo da salgai famili bakoitzari 1000 pezeta eskatuz eskutitzak bidaliko dira, 500 pezetako laguntza bonoak banatuko dira... guztia, Usurbilgo herriaren izenean Urruñako ikastolari dirua eman asmoz.

Josu Aranberri



Euskara ikasi edo hobetu nahi baduzu, ZATOZI!

Izena emateko epea otsailak 6 arte

Udalaren dirulaguntza langabetu eta ikasleentzat

A genda

URTARRILAK 30 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

URTARRILAK 31 larunbata

- **Usurbilgo Gazte Asanbladak 24 orduko futbol txapelketa** antolatu du.
- **Herri Batasunak Herri Batzarra antolatu du** Aitzaga Elkartean, gaueko 22.00etan. Bertan, 98rako lan ildo eztabaidatuko da.

OTSAILAK 2 astelehena

- **Euskal Herria Askatutren manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

OTSAILAK 9 astelehena

- **Euskal Herria Askatutren manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.


OTSAILAK 11 asteazkena

- **Guraso Eskolak "Emakumea izan eta saiakeran ez hiltzea" hitzaldia** antolatu du. Udarregi zaharrean, arratsaldeko 18.00etan.

OHARRAK

- ✓ **Usurbilgo Udalak, Guraso eskolaren laguntzaz, "Emakumea, aldaketak bizitzan zehar" ikastaroa** antolatu du. Izena emateko epea urtarrilaren 30ean amaitzen da. Interesatu bazeude edo informazio gehiago nahi baduzu, deitu 37 19 51 telefonora.
- ✓ **Guraso Eskolak makrame ikastaroa** antolatu du. Otsailetik maiatza arte izango da Udarregi Zaharrean. Izena

Etumeta AEK
Euskaltegiak otsailetik ekainera bitarteko **ikastaroetan** (EGA, Alfabetatze, Euskalduntze) **izena emateko epea** ireki du otsailaren 6 arte. Informazio gehiago, 37 20 01 telefonon.



emateko, deitu 36 41 80 telefonora.

- ✓ **Guraso eskolak saloi dantzen ikastaroa antolatu du.** **Urtariletik aurrera astearte** eta ostiraletan bi ordu. Bertan, euskal dantzak, tangoa, fox-trota, saltsa, rocka, txaxa-txa, merengea, saltsa eta lanbada erakutsiko dira bertan. Izena eman nahi duenak, deitu telefono honetara: 36 41 80.

- ✓ **Guraso eskolak antolatuta, Joseba Aierbek antzerki tailerria prestatuko** du urtariletik ekainera bitartera. Izena eman nahi duenak, deitu telefono honetara: 36 41 80.

- ✓ **Udalak "Enpresa kudeaketa eta sorkuntza" ikastaroa** antolatu du langabezian egon eta negozio ideia bat eduki eta aztertu nahi dutenentzat. Ikastaroa otsailen hasi eta martxoan amaituko da. Izena emateko epea urtarrilaren 23an amaitzen da. Informazio gehiago udaletxean. Telf: 37 19 51. Josune Mujika.

- ✓ **Kate bat galdu da.** Bertan, "Beñat, 1990-9-2" jartzen du. Inork aurkitu badu, deitu 37 26 75 telefonora.

- ✓ **Pisu bat hartu nahi nuke alokairuan.** Ahal bada, herriaren erdialdean. Deitu telefono hauetara eta Kristinarengatik galdetu: 36 58 99 edo 989 89 80 95.

- ✓ **Pixua daukat salgai** herriko erdialdean. Hiru gela, sukalde, komuna eta ganbararekin. Berogailu eta gasarekin. Interesatuok deitu 37 07 23 telefonora.

- ✓ **Pisu bat alokairuan daukat.** Interesatuok deitu 36 20 88 telefonora.

LANPOSTUAK

- ☞ **Aretxabaletako Udalak Hirigintzako Erdi Mailako Teknikari bat** behar du. Eskakerak aurkezteko epea otsailaren 6an amaitzen da. Informazio gehiago Aretxabaletako udaletxean edo GAOko 5. zenbakian.
- ☞ **Donostiako Hiriko Euskararen Udal Patronatuak lau hizkuntz normalizatzaile lanpostu behar ditu.** Eskakerak aurkezteko epea otsailaren 7an amaitzen da. Informazio gehiago Donostiako udaletxean edo GAOko 6. zenbakian.

BAZKIDIE TXARTEEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
Noaua!



Aginaga, Tlf: 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

AGINAGA



Zubieta, Tlf: 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

ARAETA



Trokoalde, Tlf: 37 16 40
Sagardotegi eta etxeko menua egunero.

ILLUNBE



Zubieta, Tlf: 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

IRUIN



Kalezar, Tlf: 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.

SAIZAR



Aginaga, Tlf: 37 26 91
Igande gauetan itxita.

URDAIRA

